


“ Tokian tokiko ezaugarriei erantzuten dien arkitekturaren sinesten dugu ”

Ibon Salaberriari elkarrizketa

Unai Fernandez de Betoño

Ibon Salaberriak eta Amaia Casadok Toki arkitektura-bulegoa osatzen dute. EHUko irakaskuntza-lana eta erronka arkitektoniko berriak tartekatzen dituzte. Igaro den 2008. urtea benetan oparoa suertatu zaie alde profesionalan



**Gako-hitzak:**

Arkitektura Eskola  
Arkitektoen Elkargoa  
Lan ibilbidea

*Donostiako Arkitektura Eskolan egin dugu elkarrizketa. Solasaldia ordenagailuaren aurrean eman dugu, Toki arkitektura bulegoaren bloga[1] eta beste webgune batzuk tarteka ikuskatuz. Amaia lankidearen izenean ere hitz egin dugu. Hiru ordu-laurdeneko jardun intentsua telefono mugikorrek pare bat aldiz soilik eten egin du. Goiz lasaia izango zuen Ibonek.*

#### Noiz eskuratu zenuten arkitekto-titulua?

2003ko martxoan edo apirilean bukatu genuen arkitekturako karrera Amaiak eta biok, eta segituan eman genuen izena Arkitektoen Elkargoan.

#### Ondoren Andoainen eskultura bat egiteko konkurtsoa irabazi zenuten.

Bai, baina konkurto hori Nerea Zapirain artistak, Alex Mitxelena arkitektoak eta hirurok egin genuen. Oraintxe bertan egon naiz Nerearekin hitz egiten, arazoak baititugu eskulturarekin.

#### Lekuz aldatu nahi dute, ezta?

Bai. Esaten dute oso arriskutsua dela eta tokiz mugitu nahi dute. Umeak eskulturara igotzen dira, eta ematen du bertatik lurrera jausi daitezkeela. Orain arazoa beste leku batera eraman nahi dute udalekoek, besterik gabe. Horregatik, gu egoskorrak jarri ordez, proposamen ezberdin bat luzatu behar diegu, hots, tramankulua birziklatzea. **Lekuz aldatzeko nahitaez zatitu behar dutenez eskultura, zati horiek parke batean zehar banatzea proposatuko diegu**, eskulturaren birmoldaketa bat lortze aldera. Ez dauka logikarik eskultura dagoen moduan beste leku batera eramateak.

#### Arazo horiek ez ziren hasieran aurreikusi?

Ez. Konkurtsoan eskultura kokatzeko puntu zehatza finaturik zegoen jada. Guri azalera erabilgarri bat proposatzea bururatu zitzaigun, **eskultura kiosko** moduan ere funtziona zezan. Gure sorpresarako konkurtoa irabazi genuen, hura eraiki, eta ondoren hasi ziren ikusten hiri-altzari gisa erabilgarria den eskulturaren arriskua. Agian idulki baten gainean jaso eta beirazko kutxa baten barnean sartu beharko lukete, inork erabil ez dezan... Hau da, eskultura erabilgarritasunik gabeko dekorazio-pieza huts moduan erakustea, hain zuzen ere guk ekidin nahi genuena!

#### Kolaborazio gehiago egin al dituzue?

Hiruron artean, ez.

#### Hala ere, arkitekturaren konplexutasuna dela eta, taldeka lan egitea beharrezkoa da arkitekto gazteentzat.

Bai. Pizkundeko **arkitekto ahalguztidunaren figura guztiz desagertu da.**

#### Amaiak eta zuk Toki arkitektura bulegoa sortu duzue. Non ezarri zarete?

Zarautzen. Behe-solairu batean daukagu bulegoa. Guk geuk diseinatu dugu. Intimitatea eskuratzeko, esate baterako, leihoak altu kokatu ditugu.

#### Beraz, ez duzue uste euskal arkitektook lana bilatzeko Parisera edo Madrilera joateko beharra duzuenik?

Ez, hori argi geneukan. Eskolako irakasle batek gomendatu



“Zubimusu Etxea”: 9 etxebizitza Gabirian (Gipuzkoa)

Argazkilaria: Asier Larraza

egin zigun kanpora joatea. Hala ere, iruditzen zaigu **hemen eskuratzen ditugun aukerak baliatuz arkitektura interesgarria egin daitekeela**. Eta egitearekin esan nahi dugu arkitektura gauzatu beharra dagoela, paperetik harago joan beharra dagoela. **Arkitektura ez da marrazkia, edo hasierako proiektuaren egitasmoa, azkenean egikaritzen dena baizik.**

#### **Eta zein da enkargu erreala lortzeko modua? Arkitektura konkurtsoa?**

Batez ere ezagunak edukitzea. Guk apenas egin dugu konkurtsoarik.

#### **Hori seinale ona izango da.**

Bai, baina ez pentsa enkargu ugari dugunik. Amaiak eta biok pentsatu genuen **konkurtsoetan sartuko genukeen denbora edozein enkargu txikian inbertitzea trukean**. Askotan ematen du enkargu txikietatik ezin dela ezer onik espero, baina ez da egia. Denbora ematen baduzu, azkenean arkitektura sortu egiten da.

#### **Zer iruditzen zaizue azken boladan konkurtsoak esleitzeko modan jarri den joera, zeinetan amaierako fasean proiektu bartzuen artean herritarrei gustukoena aukeratzeko uzten baitzaie?**

Ez dugu ondo ikusten. Herritarren parte-hartzea ez datza azken fasean bozkatu ahal izatean. **Herritarrek parte hartu beharko lukete hasierako egitaraua zehazteko orduan. Proiektu jakin bat aukeratzeko mementoan, ordea, teknikoek beraiek aukeratu beharko lukete** hasieran herritarrekin batera zehaztutako programari hoberen atxikitzen zaion diseinua.

#### **Bozketa popularrarena orduan zer da, politikoei eskuak garbi ditzaten asmatutako sistema bat?**

Neurri batean bai, **bozketa horiek propaganda politiko hutsa izan ohi dira**. Hala ere, batzuetan jendearen joera estetikoak jakitea ez dago gaizki.

#### **Zer-nolako arkitektura mota garatu zenuten karrera-amaierako proiektuan?**

Karrera-amaierako proiektuan hiru gai ezberdinen arteko erlazioa jorratu nuen nik, alegia, azalak, egiturak eta instalazioek osatzen duten sistemarena. Interesatu zitzaidan **egitura eta instalazioak batera ebaztea**.

#### **Funtzio bikoitzeko elementuak interesatzen zaizkizue, beraz, zuen bulegoan dauden eskailera-apalategian ikusten den bezala?**

Hori baino, elementu txikiekin ahalik eta gauza gehien egitea bilatzen dugu. Adibidez, orain Ezkioko baserri baten zaharberritzea egiten ari gara, eta proposatu dugu terraza bat funtzio bikoitzarekin, ikuspegi ederrez gozatzeko leku bezala eta komunikazio-gune gisa estalpean diseinatu dugun apartamentu txiki batera ailegatzeko.

#### **Zuen proiektuen izenak oso bilatuta daudela ikusten da: casa-do, lan Toki, eskena Toki, Anderjaus... Izena proiektuaren zati da?**

Izena garrantzitsua da. Bulegoaren izena bilatzen nahikoa denbora eman genuen Toki aurkitu arte. Toki izenak leku jakin bati egiten dio erreferentzia. Arkitekturak toki eta une zehatz baterako balio duela iruditzen zaigu. Tokian tokiko ezaugarriei erantzuten dien arkitekturaren sinesten dugu.



“Anderjaus”: Etxe-eraberritzea Ezkion (Gipuzkoa)

Argazkilaria: Toki

#### Zer eskaintzen dizue unibertsitateak?

Klaseak ematen hasi nintzen Jon Begiristain irakasleak bultzatuta. Oraindik ez dakit horretarako balio dudanetz. Beldurra ematen dit ikasleei arkitekturarekiko grina ganoraz ez helaraztea.

#### Miguel Garaik transmititzen zuen bezala, esan nahi duzu? Bide batez, Miguel lagundu egin zenuen proiekturen batean, ezta?

Bai, Donostiako Artelekuko eraberritzean laguntzeko egon nintzen Miguel Garai, Santos Barea eta Fernando Moraren bulegoan, Irune Sacristanekin batera. Alde horretatik, Miguel gehiago behar ditugu eskolan, bai, arkitekturaren inguruko teoria bat bazuen eta hura energia helarazten bazekien.

#### Nolako metodologia jarraitzen duzue zuen eskoletan?

Aurten arkitektura egiteko prozesuetan bereziki sakondu egin dugu. Horretarako blog bat sortu dugu Interneten[2], baita ikasle guztiak haien lanak erakusteko blogak egitera behartu ere. Horrela, zirriborroak publiko bihurtzean, ikasleak hobeto neurtzen du erakusten duena, eta txukunago egiten du. Beraz, ikasle bakoitzaren koaderno pertsonala ikusgai bihurtzen da, eta guztiak ikus dezakete besteak zer ari diren egiten. Askotan proiektua ikasleen eta irakaslearen artean geratzen den gauza ezkutua da, eta guk hori ekidin nahi genuen.

#### Gazteak izateagatik gertuago ikusten zaituztete ikasleek?

Bada, ez dakit. Ez dakit zer-nolako irudia duten gutaz. Argi dagoena da **gazteok dinamika berriak sartu beharko genituzkeela eskolan**. Emaitzei hainbesteko garrantzia eman ordez, prozesuei eman nahi diegu guk. Azken finean, arkitektoa gertaera luze baten kudeatzailea da, eta hori nola antolatzen ikasi behar

du. Zentzu horretan, erlazio handia dago arkitekturaren inguruko prozesua eta film bat egiteko garapenaren artean. Bietan kudeatu behar dira agente asko eta garai asko.

#### Zertarako da Toki bloga? Zuen lana gizarteratzeko tresna da?

Bloga elkarrekin banatzea da. Gizarteratzeko soilik balitz web 1.0 motako webgune estatiko bat antolatuko genuen. Blogarekin besteen parte-hartzea ere bilatzen dugu.

#### Arkitektoen Elkargoaren Gipuzkoako batzordekide zaitugu, Ibon. Elkargotik webgune parte-hartzaile bat eraikitzen ari zarete[3].

Bai. Oraindik parte-hartzea ez da oso handia, baina ez dugu etsi. Elkargoaren beste ekimenen aurkezpenetan ere, esate baterako, jende gutxi hartzen du parte. Webgunearen asmoa litzateke bakoitzak eraikitzen dituen proiektuen inguruko informazioa Internetera igo eta e-rakutsi ahal izatea, hau da, lankideentzako erakusleho ireki bat bermatzea. Konfiantza arkitekto gazteengan dugu batez ere, tresna zibernetikoak hobeto erabili ohi dituztelako. **Elkargotik interesatzen zaigun beste kontu bat da arkitektoen iritziak gai ezberdinen inguruan jaso ahal izatea**. Horretarako webgunean foro bat antolatzea eta inkestak egitea dira gure asmoak. Bestalde, iruditzen zait Elkargoak arkitekturarekin erlazioatutako ekimen ezberdinen sustatzaile izan behar duela, formazio teknikoan ez ezik, hezkuntza kulturalen ere bai.

#### Babel bezalako hitzaldiak antolatzen?

Hori da. Horrelako jarduera garrantzitsuak antolatzeko Elkargoa beharrezkoa da. Babel definitzen, esate baterako, urte bat



“SB Parkea”: Santa Barbara ermitaren eranskin-eraberritze eta -handipena Urretxun (Gipuzkoa)

Irudia: Toki

eman dugu. Egindako lan horri guztiari nolabaiteko jarraitutasuna eman nahiko genioke, laborategi edo ikertzeko batzorde iraunkor bat antolatuz.

#### **Diversa aldizkarian parte hartu zenuen, eta duela gutxi Arkakuso izeneko proiektua ezagutu dugu[4].**

Diversa aldizkariaren azken alean hartu nuen parte. Ez genuen lortu lan-talde iraunkor eta konprometitu bat mantentzea. Hasieran egondakoek, Roberto Villamayor arkitektoak edo Santos Bregaña diseinatzaileak kasu, lan asko egin zuten, baina lan-talde berriarekin ez genuen beharrezko inplikaziorik lortu.

**Arkakuso proiektuaren asmoa** ezberdina da, hau da, **arkitekturako aldizkari bat Interneten PDF formatuan eskegitzea**.

Bertan euskara eta gaztelania nahastu ditugu, artikuluen egilearen hizkuntzaren arabera.

#### **Felix Arranzen “44 young architects 2008” delako bilduman agertuko zarete.**

Sorpresa handia izan da guretzat. Arquia/Próxima foroan eta JAE erakusketan agertu ondoren, Felix Arranzen bildumakoak gurekin jarri ziren kontaktuan, eta hiru proiekturen informazioa bidali genien: Gabiriako Zubimusu etxea, eskena Toki izeneko eszenografia eta Urretxuko parkean diseinatu dugun eskala txikiko proiektu bat.

#### **Posible al da proiektu oso bat euskaraz egitea, Eraikuntzaren Kode Teknikoa (CTE) euskaratua eduki gabe? Elkargoak ezin du zer edo zer egin zentzu horretan?**

Gu proiektu bat euskaraz egiten saiatu ginen, baina denbora ezagatik ez ginen osoa egitera ailegatu. Iturgintza gaztelaniaz

bukatu behar izan genuen. Elkargoak eraikuntzaren baldintza-plegua euskaratzeko izapideak hasiak ditu. Dekanatuak sus-tatuko du itzulpena. Agi denez, Eusko Jaurlaritzak horretarako dirua bideratuko du ere bai.

#### **Krisiaren eraginak nabaritu dituzue? Etorkizuneko enkarguren bat bertan behera gelditu zaizue?**

Oraindik ez, baina lan publiko anitz eten egingo dutela entzun dugu. Hala ere, gure estudioa txikia denez, ez dugu krisia gehiegi nabarituko. Arazoak bulego handiek izango dituzte batez ere, soldata ugari ordaindu behar dituztelako. Guk mementoz esku artean ditugun proiektuak bideratzen saiatuko gara, hots, Anderjaus baserriaren zaharberritzea, Urretxuko parkearena eta Amezketako etxebizitza batzuen.



[1] <http://toki-arkitekturak.blogspot.com>

[2] <http://p3-ibonsalaberria.blogspot.com>

[3] <http://www.coavnss.org>

[4] <http://arkakuso.blogspot.com>